

Xabier Mendiguren
Pernando, bizirik hago oraindio


XABIER MENDIGUREN

**PERNANDO,
BIZIRIK HAGO ORAINDIO
1988 Toribio Alzaga Lehiaketa**


**Euskaltzaindia
Bizkaiko Aurrezki Kutxa
Bilbao
1989**

ESKENATEGIAREN IRUDIAK:

— Aurrekaldetik ikusita:



— Gaikaldetik ikusita:



JOKALARIAK: PERNANDO
JOXEPA, Pernandoren emaztea.
DON GAXPAR, Erretorea.
BITTORI, Erretorearen neskame neskazarra.
GURASOAK, Pernandorenak.
SEME-ALABAK, Pernando eta Joxeparenak.
ZABALA, Pernandoren lagun bertsolaria
HERRITARRAK, PONTEKOAK...

Lau jokalaria nagusiez gainerako heldu guztien antzezpena bi lagunen artean burutzeko modukoa da: bata gizonezkoa, bestea emakumezkoa, itxura desberdinak hartuz. Jende gehiago balego, banaketa egokiagoa ere egin ahal izango litzateke.

Haurretan, gutxienez mutil bat behar da, baina hobe litzateke pare bat, neska-mutilak, balira. Jaio berriren bat agertzen denean, jakina, panpinen bat erabiliko da.

ESKENATEGIA:

Ekitaldi bakarra dugu eta eskenategi bakarra, baina zenbait alderdi dituena. Ikuslearen aldetik begiratuta, eskuinetik ezkerretera izan genitzake: Pernandoren etxea, kalea, atzean eliza, eta ezkerretara Erretorearen etxea, ondoko marrazkian adierazten den bezala.

Etxeak idurikatzeko, ohol batzuk erabiliko dira, egoki pintatuta eta elkarrri erantsita etxaurrearen itxura hartzen dutenak. Etxe barnea, aulkiak, eta mahaia izango dira besterik gabe, bestelako apaingarriren bat ere erants daitekeelarik; bi etxeetan gortina moduko bat erabiliko da sartu-irteeretarako; beti ere dotoreagoa apaizaren etxea Pernandorena baino.

Etxaurrea osatzen duten ohol hauek ez daude inondik zintzilik, zoruaren gainean jarrita baino. Beraz, badago mugitzea: hartara, ekintza kalean edo elizan suertatzen denean, etxeak bazterretara

eramanez, toki zabalagoa geratuko da erdian. Aitzitik, ekintza etxeren batetan gertatzen denean, etxe hori erdialdera ekar daiteke, etxebarne horretarako leku erosogoa utziz. Bi etxeek ate bana dute, zabal daitekeena, eta leiho bat behintzat.

Eliza, dagokionean besterik ez dago agertu beharrik. Hau idurikatzeko, gurutze bat eta zapi zuri batez estalitako aldarea erabiliko dira; horiez gainera, zehazten den uneetan, konfesalekua eta ponteata aterako dira; ekintza guzti hauek burutzeko kaleak betetzen duen aldea erabiliko da.

Ez da izango atzekaldean eskegitako zapirik ez antzekorik.

ARGIAK:

Argi batek egon behar du etxe bakoitzaren gainean, eta beste bat erdialdea argitzeko. Beraz, ekintza alderdi batean edo bestean gertatu, horixe izango da argiturik suertatuko den agertokiaren aldea.

Agerraldien artean ILUNA egingo da une batzuez, gauzak batetik bestera aldatzeko, edo denbora aldaketa adierazteko. Ilunaldi hauek laburrak izan behar dute, salbu eta bi parte nagusien artean egiten dena.

MUSIKA:

Agerraldien artean, laburrak direnez ilunaldi tarte horiek, ez da beharrezkoa musikarik izatea. Hasieran nahiz bukaeran kome-nigarria litzateke, eta bi parte nagusien arteko atsedenaldi luzexea-goan ere bai.

Musikak, jakina, herritarra izan beharko du, baserri girokoa hobe. Horrez gainera, kanpai hotsa, organuaren soinua, txerri kurinkak eta ume jaiio berrien negarrak entzun beharko dira.

1. AGERRALDIA

(Ume negarrak entzuten dira. Argituz doa Pernandoren etxea, eta bertan Joxe eta Joxepantoni, Pernandoren GURASO gazteak ageri dira. Biak eserita, artazuriketa edo antzeko lanen batetan. Ama makal ageri da, indarrez ahul. Inoiz edo behin seaskan dagoen umea aharrantzaka hasten da, eta amak seaska eragiten du.)

AITA

(Pozik) Hara, jaio zaigu gure lehendabiziko semea.

AMA

Bai, ondo kostata atera da baina.

AITA

Horrek orain ez digu ajola. Inporta duena da jaio dela, eta mutiko osasuntsua atera zaigula.

AMA

Halaxe da bai, lau kilo pisatu ditu eta.

AITA

Gose ederrarekin etorri zaigu mundura. Izango al du beti zerjana ugari!

AMA

Lanerako gizon zintzoa baldin bada behintzat...

AITA

Izango ez da ba! Langile zintzo eta fin askoa, gure baserri zaharra aurrera ateratzeko.

AMA

Beharra badugu behintzat. Nik Jaungoikoari eskatzen diodana da mutiko kristau eta elizkoia izatea; gainerakoa berez etorriko da eta.

AITA

Aizu! Ezin hasiko gara jaio berriaren bizitza tajutzen. Orain egin behar duguna izen bat asmatzea da; gure mutikoarentzako izen polita.

AMA

Ez dakit ba nik zer esan. Zurea Joxe da, nerea berriz Joxepantoni... zer moduz Joxeantoni jartzen badiogu?

AITA

Ez, ez. Lehenago ere Joxeantonio pranko badugu eta beste zeo-
zer asmatu beharra dago. Izen motza eta gogoan hartzeko erraza.

AMA

Koxme?

AITA

(*Purrustaraka*) Ez!

AMA

Kalixto?

AITA

Ezta!

AMA

Modexto?

AITA

Baita zera ere! Idixko jarriko diogu nahi baduzu!

AMA

Guk ez dugu idixkorik.

AITA

Ez; guk mando bat besterik ez dugu. («mando» hitzean indar
berezia jarriz.)

AMA

Eta Fernando?

AITA

(*Pozez*) Bai, horixe! Fernando. Horixe izen egokia! Gizaseme
serio eta prestuaren izena da hori: Fernando.

AMA

Eta santuena ere bai.

AITA

Bai, hori ere bai: Fernando. (*zutiturik seaskaraino joan eta ber-
tan dagoen umeari hitz eginez*) Fernando, mundu honetan gizona-
ren erdia izena duk eta beste erdia izana. Izena baduk; orain hire
izana ikusteko zegok!

(*Iluna*)

2. AGERRALDIA

(*Erdi ilunpetan, Ama ikusten dugu, atera irteten duela; zaharxeago edo ematen du.*)

AMA

Pernando, Pernandooo!

PERNANDO

(*Ikusten ez dugula, urrunagotik entzuten zaio ahotsa*) Ez noala oraindiooo!

AMA

(*Barrura sartu eta erdi ilunpetan —kandela bat izan dezake eskuan— traste batzuk biltzen ari dela marmarka arituko da bakarririk*) Hau harria erori zaiguna! Hau da mixeria hau! Hau da mixeria! Bururik ez dut altxatuko seme honekin. Egun osoan atzetik ibili behar «Pernando, egintzak hau», «Pernando, egintzak beste hori», «Pernando, etor hadi hona», «Pernando, joan hadi hara», eta seme malapartatu hau beti ihesi, inoiz lanik egiteko borondate-rik gabe. Honek baserria altxatu? Putza altxatuko dik honek, zahatoa ez baldin bada! Hau da etxekaltea! Honek eramango nau ni hilobi zulora. Jaio zenean ere neke galantak eman zizkidan, eta jaio ondoren ez dira samurragoak izan. Ai ene! Hau etxeko hondamendia! Gau eta egun beti builaka eta hark berriz bertsotan erantzun! Umorea ez zaio falta ez. Neri kendu didana eraman du lotsagabeak. Hau harria buru gainera etorri zaiguna... (*erretolika horrekin jarraitzen du argia itzalduz doan bitartean*)

3. AGERRALDIA

(Eliza aldean, konfesalekua erdi erdian, eta Don Gaxpar barruan, begien bistan, zurrunka lokuluxka egiten. Fernando gaztea sartzen da, batera eta bestera begira; apaiza lotan ikusi eta ez tul egiten du; erretorea zertxobait izutu, baina zurrunka geratzen da berriro; berriz ere ez tul egin, oinetakoz zoruan jo eta esnatu egiten da azkeneko Don Gaxpar.)

DON GAXPAR

(Esnatu berritan, inguruan zer den jabetzen ez dela, automatikoki) Sin pecado concebida.

PERNANDO

Egunon, Don Gaxpar.

DON GAXPAR

A! hi al haiz?

PERNANDO

(Atzera eta alboetara begira) Nik dakidala ez da hemen beste inor.

DON GAXPAR

(Zutituz; poliki hitz egiten du) Kontxo, kontxo. Lotan geratu nauk ba, konturatu gabe. Eta? Zer dela eta hi etxe honetan, aspaldiko partez?

PERNANDO

Apaizek ere bizi egin behar dutela eta.

DON GAXPAR

Bai ba, bai ba. Hi ere ez haiz makal bizi halere.

PERNANDO

Apaizak bezala inortxo ere ez ordea.

DON GAXPAR

Ez duk horrenbesterako ere, ez duk horrenbesterako. Makina bat buruhauste izaten diagu guk.

PERNANDO

Bai; mezadiru gehiago nondik aterako eta...

DON GAXPAR

Itxi ezak aho beltz hori, itxi ezak, ezagutzen haut eta. Esango al didak behingoz zertara etorri haizen?

PERNANDO

Lehen ere esan diot apaizek ere bizi egin behar dutela, eta konfesatzeko asmotan etorri naiz.

DON GAXPAR

Aitaren ta Semearen... Hi konfesatzera? Pozarren. Jarri, jarri hor belauniko berehalaxe hasiko gaituk eta. (*eseriz*) Luzarorako izango dugula iruditzen zaidak baina.

PERNANDO

Berorren esku, luze edo laburrago izatea (*belauniko jarriz*).

DON GAXPAR

Hori ez diat nik esan behar, pekatu saila zenbatekoa den ikusi behar. Gainera, zenbat denbora duk konfesatzera etorri ez haizela?

PERNANDO

Nik al dakit ba!

DON GAXPAR

Zertan ibili haiz ba, sarriago azaldu gabe?

PERNANDO

Badaki berorrek: ardiekin izandu naiz mendian eta, han berriz elizarik ez eta...

DON GAXPAR

Eta jeitsitakoan?

PERNANDO

Jeitsitakoan ere gogo gutxi eta.

DON GAXPAR

Eta ez al dik lotsarik ematen hola, lasai lasai esateak?

PERNANDO

Nola nahi du esatea ba, negarrez?

DON GAXPAR

Estututa behintzat, estututa. (*Pernando estu-estu jartzen da konfesalekuaren kontra*) Zertan ari haiz?

PERNANDO

Estutzen, berorrek esan duen bezala.

DON GAXPAR

(*Haserre keinu baten ondoren*) Tira tira; utzi txorakeria horiek eta gatozen gurera.

PERNANDO

Ave María Purísima. (*Ebakera euskaldunez*)

DON GAXPAR

Sin pecado concebida (*berdin*). Ea bada, hasi!

PERNANDO

Nondik hasi behar dut?

DON GAXPAR

Nondik hasiko haiz ba: lehendabizikotik!

PERNANDO

Ni jaio nintzenean amari titia eta titia eskatzen nion eta orduan amak...

DON GAXPAR

Lehendabiziko manamendutik esan diat, artaburu halakoa! Jaungoikoa gauza guztien gainetik maitatzea. Hire burua baino gehiago.

PERNANDO

Hori gehitxo esatea ez al da?

DON GAXPAR

(*Harrituta*) Nola gehitxo?

PERNANDO

Norberaren buruaren erdia maitatuta ere ez da gutxi, ezta?

DON GAXPAR

(*Haserre*) Lotsagabe arraioa: beste ezer baino gehiago maite behar duk ba! Segi aurrera: bigarrena, Jainkoaren izena alferrik ez erabiltzea.

PERNANDO

Zer esan nahi du: kabendioska eta aritzea?

DON GAXPAR

(*Zutitu eta izututa, «aitaren eta semearen» hasten da, eseri, zutitu, eskuak burura eraman eta puzka ari dela*) Baina... baina... hola-korik egundaino! Jesus, Maria eta Jose. Itxi ezak, itxi ezak aho beltz hori! Ene, ene...

PERNANDO

Lasaitu bedi, Don Gaxpar, nik ez dut sekulan Jainkoaren izena alferrik erabili eta.

DON GAXPAR

(*Lasaitu bat hartuz*) Ez?

PERNANDO

Ez ba; behar danean bakarrik.

DON GAXPAR

(*Berriro estutuz*) Nola behar denean?

PERNANDO

Hori ba, baten batek zerrikeriaren bat egiten badit edo, azeriak ardiren bat akabatu edo, orduan, orduan hasten naiz mekabenka.

DON GAXPAR

Holakorik ez duk sekulan esan behar! Aditzen duk? Sekulan ez.

PERNANDO

Konforme, konforme... Ez haserretu horregatik.

DON GAXPAR

Beno ba. Hirugarrena?

PERNANDO

Ondo jostea beti, galtzaren barrena. (*Kantari antzean*)

DON GAXPAR

(*Zartakoa emateko keinuz*) Nik emango diat hiri galtza barrena. Jai egunak santifikatzea duk motell, jai egunak santifikatzea.

PERNANDO

Bai, hori bai, jai egunak santu dira neretzat.

DON GAXPAR

Zer egiten duk ba?

PERNANDO

Etzan eta egon; eta aldian behin sagardotegira joan eta bertso-tan aritu.

DON GAXPAR

Hori al duk hire santutasuna? Mezatara joan behar duk, mezatara. Eta ez ibili gero mozkorkerian eta arlotekerian.

PERNANDO

Jai egunetan egiten ez badugu noiz egin behar dugu ba?

DON GAXPAR

Inoiz ez. Pekatua inoiz ez. Goazen aurrera: laugarrena? (*Ixilu-ne labur bat*) Gurasoak ondratzea.

PERNANDO

Hondatzea?

DON GAXPAR

Ondratzea esan diat, astakirtena, ondratzea! Horrek esan nahi dik obedientzia eta errespetua zor zaizkiela.

PERNANDO

Nik zorrik ez e! Ez aitatu neri zorrik!

DON GAXPAR

Zer duk ba?

PERNANDO

Zer dudan? Batak ardia zor diodala, besteak bazkaria, ez naute berehala pakean utziko alajaina!

DON GAXPAR

Horrek konponbide erraxa dik; badakik, zorrak pagatu eta kitatu.

PERNANDO

Oraintxe egingo nuke kito, zerekin ordaindua banenka.

DON GAXPAR

Tira tira; lehenbailehen konpon ezak, eta beste batetarako utziko diagu kontu hori. Gatozen gurera. Boskarrena?

PERNANDO

Hori badakit, gizasemerik ez hiltzea.

DON GAXPAR

Eta bete al duk?

PERNANDO

Bete bai; atzetik diru eske dabilzkidan horietakoren bat hilko balitz mesede ederra egingo lidake baina.

DON GAXPAR

(*Asaldaturik berriz ere*) Baina, baina... Hori esatea ere! Jesus, Maria eta Jose.

PERNANDO

Gutxi jan ta beti gose.

DON GAXPAR

Baduk hik beti ateraldiren bat erantzuteko. Hobe huke hire gogo eta kemen horiek lanerako jarriko bahitu, berriketarako jarri beharrean.

PERNANDO

Ejenplu kaskarra ematen du ba berorrek.

DON GAXPAR

Nola liteke...? Baina, baina... zer errespetu duk hori? Ez al dakik nor dagoen hire aurrean?

PERNANDO

Herri honetan bizkarra jateko besterik makurtzen ez duen bakararra.

DON GAXPAR

(*Aztoratuta, altxa eta belarritik tiratu nahian*) Nik makurtuko diat hiri bizkarra eta bero-bero egin makilkadaka, lotsagaldu halakoa! Alproja alena, demonio! (*Kaskarreko batzuk emanaz*).

PERNANDO

Ai, ai, ai, ai.

DON GAXPAR

(*Berrito eseriz, apur bat lasaituz*) Kontuz zer esaten duan gero! Kakaume batek... Hobe aurrera segitzea: seigarrena?

PERNANDO

Nahi eta ezina.

DON GAXPAR

Nola?

PERNANDO

Hori ba, pekatu egin nahi baina ezin dela.

DON GAXPAR

Horixe polita! Ez genian besterik behar: pekatuaren atzetik ibiltzea. Eskerrak hire moduko zororik aurkitu ez duan zikinkerietan aritzeko.

PERNANDO

Izan, laguna badut; baina aukera falta zaigu, lekua eta.

DON GAXPAR

Ai ene, ai ene! Zein duk ba, zein duk engainatu duan gaiso hori?

PERNANDO

Gaisoa ez, Saletxeko Mari Joxepa osasun eta iztar ederretakoa da eta.

DON GAXPAR

Saletxeko Mari Joxepa? Ene, horren neska gazte eta zintzoa... Hik eraman duk hori okerreko bidetik.

PERNANDO

Ez, ez; nik Agerreko sagasti aldera eraman nahi izan nuen, zuzen zuzen. Baina norbaitek ikusiko gintuela eta, ez zuen nahi izan.

DON GAXPAR

Eskerrak ezezkoa eman zian; bestela...

PERNANDO

Beste zerbait ematen dit batzutan.

DON GAXPAR

Zer?

PERNANDO

Muxuren bat eta.

DON GAXPAR

Ez da egia izango?

PERNANDO

Xirriren bat edo beste eta.

DON GAXPAR

Zer gehiago?

PERNANDO

(Etsi antzean) Hortik aurrera ezer gutxi.

DON GAXPAR

(Lasaitua hartuz) Jainkoari esker. Besterik ez genuen behar...

PERNANDO

Nik beste zeredozer ere hartuko nuen ba.

DON GAXPAR

Emango diat...! Bihar bertan hitz egin behar diat nik Mari

Joxeparekin eta bere gurasoekin. Egoera honi konponbidea jarri behar zaiok.

PERNANDO

Okerbidean jartzen ez badu... Hau ez al da sekretu konfesiozkoa?

DON GAXPAR

Ixilik egon hadi, hemen ez zegok holakorik eta. Dena dela, horretaz hitz egiteko aukera izango diagu gero ere. Orain beste zer-baitetan ari gaituk, eta esaidak zer den zazpigarrena.

PERNANDO

Norberarena dena, besteri ez ematea.

DON GAXPAR

Nondik atera duk hori?

PERNANDO

Hara ba, norbaitek neretik kentzen badit zer egiten du? Lapurtu; eta zazpigarrenaren kontrako pekatu. Beraz, neretik hartzen uzten ez badiot, ez da pekatuak aukerarik izango.

DON GAXPAR

Eta hik besterenetik kentzea?

PERNANDO

Besteak ondo gordetzeko bezain azkarrak ez badira...

DON GAXPAR

Hi bai azkarra, edo azkar ustekoa. Esan ezak: inorenetik hartu al duk azken aldi honetan?

PERNANDO

Hartu, hartu... heldu bai.

DON GAXPAR

Hori ere ba al dugu? hori ere bai?

PERNANDO

Baina ez nuen eramaten asmatu.

DON GAXPAR

Gaitz erdi, gaitz erdi hala izan bazen. Damutu egin hintzen lapurreta burutu baino lehen, eztala?

PERNANDO

(Zalantzaz) Halatsu.

DON GAXPAR

Ondo zegok hori. Aingeru Goardakoaren ekintza izan huen hori.

PERNANDO

Kaka zaharra Aingeru Goardakoarena! Etxekoneko Patxiren barrabaskeria bai.

DON GAXPAR

Nola duk ba hori?

PERNANDO

Hara, ez daki ondo berorrek ze amorrua ematen didan lapurtu gabe konfesatu behar honek. Lagun bati ardi bat zor niola eta, ne-reak kaskarregiak zirenez, Patxiren larreko ardi mardul haietako bat hartu nahi izan nuen; baita eskua luzatu ere.

DON GAXPAR

Eta...?

PERNANDO

Sarea estuegia zela eta hesitik ezin pasaturik bertan behera utzi behar izan nuen. Halako amorraziorik!

DON GAXPAR

(*Farrezka*) Ez huen besterik merezi. Horrela ikasiko duk hurrengorako lapurretarik ez dela sekula egin behar.

PERNANDO

Ez behintzat sare estuko hesietan.

DON GAXPAR

Eta gainera, intentzio hutsa lapurreta egin bahu bezain pekatu larria denez, penitentzia egin beharko duk.

PERNANDO

Penitentzia? Nahiko pena badut bestela ere.

DON GAXPAR

Ba, pekatu horren orbaina garbitzeko pare bat meza eman beharko diagu, eta horietarako txakur haundi bat emango didak.

PERNANDO

Txakur haundi bat? (*Patriketan bila hasten dela, bertsoetan esaten du*)

Penitentzia dela medio
hemen berorrentzat bi hitz:
lapurtu ez nuen ardiarekin
hemen bueltaka gabiltz.
Txakur haundi bat ordaindu eta
dena barkatuko balitz,
barkatutzerik ez zen izango
bera bezain lapur banintz.

DON GAXPAR

Hik esan ezak nahi duana baina ordaindu egin behar duk. Bes-
tela ez zegok barkamenik.

PERNANDO

Diru honekin... ardia erosi banu ere merkeago irtengo zidan.

DON GAXPAR

Lehenago atera behar hituen kontuak; orain hurrengorako
ikastea daukak.

PERNANDO

*(Azkenean bilatu du txanpon bat, eta sarea dagoen aldetik es-
keintzen dio erretoreari)* Min galanta ematen dit honenbeste behar
dudana uzteak, baina eliza eliza denez, har beza berorrek txakur
haundia, arimaren onerako baldin bada.

DON GAXPAR

Hortik ez, Fernando. *(Hartzen saiatuz)*

PERNANDO

Bai, bai; hortixe.

DON GAXPAR

Hortik ez.

PERNANDO

Bai, hortik.

DON GAXPAR

Baina hortik ezin diat txanpona hartu.

PERNANDO

Ez, e? Horixe bera gertatu zitzaidan ba, neri ardiarekin. Ondo
izan eta hurren arte. *(Zutituz joan egiten da; eta argia itzali)*

4. AGERRALDIA

(Eliza kanpaiak entzuten dira, ezkontzarako deika; organua ere entzun daiteke; argia pizten da, eta erdian ditugu, aldarearen inguruan, Don Gaxpar, Fernando, Joxepa, Aitapontekoa eta Amapontekoa, eta Meزامutila aukeran.)

DON GAXPAR

Senide maiteok, ene kristautxook, oso pozgarria zait, eta pozgarria zaio halaber Jaungoikoari zuek hemen elkaturik ikustea; zertarako eta fameli berri bat osatzeko, neska-mutil gazteok bere bihotzak elkarri lotu eta Jesukristori eskeintzeko. Hala esan zigun gure Jaungoiko Jaunak: ugaldtu zaitezte eta mundua kristauez bete. Eta halaxe esaten dizuet nik ere: hik Joxepa, ondo zaindu ezan Fernando eta berak esandako guztiak txintxo bete itzan. Hik Fernando, lana gogor egin ezak etxea aurrera ateratzeko eta etxe-ko lagunak eta ondasunak xuxen eta zintzo goberna itzak, denak zerura bideratzeko. Biok izan zaitezte kristau eta eliztar onak, eta gauzak behar bezala egin itzazue.

PERNANDO

Bai, hemendik aurrera egin behar behar bezala, orain arte ahal zen moduan ibili gara eta. *(Farrezka hasten dira bertakoak; iluna)*

5. AGERRALDIA

(Berehalaxe kanpaiak berriro, bataio deika; organua ere bai nahi izanez gero; argia egin eta lehengo berak agertzen dira, arropa eta halakoetan diferentzia txiki batzuez; erdian ponteoa; haur txiki baten negarrak aditzen dira.)

DON GAXPAR

Hara, hara, azkar itzuli zarete, Amezketako parrokiari beste eliztar bat ekartzera.

PERNANDO

Bai, honek presa haundia zuen sobrare.

DON GAXPAR

Ez da ba oso aspaldi ezkondu zinetela... Oker ez banago, Apiri-laren azkenaldera ezkondu, eta Abenduan sartzea egin dugu...

PERNANDO

Bai, eguraldi eta euri honekin perretxikuak ere goizago hazten dira eta.

JOXEPA

(Noizbehinka negarrez hasten den haurrari eraginez ari dena; estu) Mesedez, Don Gaxpar, ez biezaio begiratu denborari, ume honek bataio santua behar du eta.

DON GAXPAR

Bai, ume errukior hau zuek baino santuago behintzat bada, eta berak ez du errurik gurasoak txoriburu samarrak egokitu bazaizkio. Hobeak ere merezi zituen. Banengoen ba ni, Pernandok ezkontzeko horrenbesteko presa izate hori ez zela parte onekoa...

PERNANDO

Parte izkutuak izaten omen dira onenak.

DON GAXPAR

Ai, Pernando, Pernando; famelia ere baduala eta ea behingoz formaltzen haizen piska bat.

PERNANDO

Saiatuko gara, Don Gaxpar.

DON GAXPAR

Beharko. *(Bataioa hasiz)* In nomine patri, et filii et spiritu sancti...

(Iluna)

6. AGERRALDIA

(Geroxeago kanpai hotsak berriro, bataio deika bigarrenez, baita organua ere; lehengo berak, baina beste itxura batez. Aitapontekoa edo amapontekoa edo biak beste batzuk izan daitezke; orohar itxura zahartuxeagoa izan beharko lukete; aurrekoez gainera, ume pare bat ere badira tartean, neska-mutilak, mutila hazixeagoa eta bestea kaskarragoa. Amaren besoetan beste haur bat jaiio berria eta bataiora daramatena.)

DON GAXPAR

Jesus, Maria eta Jose. Martxa ederra hartzen ari zarete. Zentbatgarrena duzue honez gero hau?

PERNANDO

Badaki berorrek, neguko gauak luzeak izaten dira eta, gure baserrian berriz hotza galanta izaten da eta, gizonak andrea ere behar du eta...

JOXEPA

(Apalki, lotsaz) Guk Jaungoikoak bidaltzen dizkigunak hartzen ditugu, eta haren borondatea bada...

DON GAXPAR

Bai, bai, bai, ez naiz ni kontra hasiko orain. Jaungoikoak esan zuen eta nik ere askotan errepikatu dizuet: «ugaldu zaitezte eta mundua kristauez bete». Baina, nere kezka da mundua umez bete ondoren denei jaten ematen asmatuko ote duzuen.

JOXEPA

Nahiko lan izaten dugu, egia esateko, nahiko lan.

DON GAXPAR

Horretara nindoan ni, horretara.

PERNANDO

Berorrek ere egin zezakeen ba, zertxobait guri laguntzearren.

DON GAXPAR

Gutxi laguntzen al dizuet ba?

PERNANDO

Zertan ikusi behar. Hitza eta kontsejuak ugari izaten ditu beti, baina estimatuko genioke noizik eta behin anega bat arto edo.

DON GAXPAR

Ni pobrea nauk Pernando, Jesukristo gure jauna bezalaxe.

PERNANDO

(Haserre) Xuhur askoa bai. Zer kostatzen zaio ba, umearen bataioa dela eta, anega bat arto erregalatzea? Horrenbeste behintzat badu eta...

DON GAXPAR

(Haserretuz hau ere) Hi bezalako alferrentzat ez zegok debaldeko artorik. Lan gehiago egin ezak, bertotan aritu beharrean, eta izango duk etxekoei jaten emateko lain.

PERNANDO

Denok goseak hilko bagina ere, berori lasai. Goazemazue hemendik, karitaterik ez dagoen etxean ez dago gauza onik eta. *(Seme nagusia eskutik hartu eta badoa kanpora)*

JOXEPA

(Larri, umea besoetan) Baina Pernando! Umea bataiatu behar dugula!

PERNANDO

Hobe erreka zuloan bataiatzea, zeken horren putzuan baino. *(Irteten du)*

JOXEPA

(Ia negarrez) Pernandooo!

DON GAXPAR

Pasako zaion haserrea eta hurrengorako ikasiko din. *(Iluna)*

7. AGERRALDIA

(Don Gaxpar liburuxka bat ari da irakurtzen konfesalekuan jarrita, marmarka. Fernando iristen da betoskoarekin.)

PERNANDO

Egunon *(Ez dago umore onez)*

DON GAXPAR

Hara Fernando. Pasa al zaik aurreko kasketaldia? Jakingo duk ba umea bataiatu genuela azkenean?

PERNANDO

Ez nator nere gogoz; andreak bidali nau txartel bila etorri behar nuela eta.

DON GAXPAR

Beharko txartela! Bestela ez zegok Pazkoazkoa egiterik. Ikasi duk dotrina osoa?

PERNANDO

(Zakar samar) Aritu gara.

DON GAXPAR

Ea bada. Ikus dezagun. Galdera errax batekin hasiko gaituk: aber Fernando, zer esan nahi du Santuen Komunioak?

PERNANDO

(Bihurri) Artorik ematen ez duena, eramango duela Inperuko Demonioak?

DON GAXPAR

(Haserretuta) Aldegin ezak hemendik! Aldegin ezak nere begi bistatik. Txartela ez, kalabaza galanta merezi duk hik, kalabaza.

(Iluna)

8. AGERRALDIA

(Kalean Zabala dago eta Fernando azaltzen da; diosalak eta egiten dizkiote elkarri.)

ZABALA

Eup! Zer diagu?

PERNANDO

Hemen ba motell. Pazkoazkoa egin behar dela eta txartel bila bidali nau andreak.

ZABALA

Eta? Eman al diate?

PERNANDO

Kaka zaharra. Bele beltz horrek ez dik ezer debalde emango.
(Aizeruntz seinalatuz.)

ZABALA

Etxe horretan denak antzekoak. Ni ere joan nauk Erretorearen etxera, mesedetxo bat eskatzeko asmotan, baina Erretorearen nes-kame xuhur muturbeltz horrek...

PERNANDO

Zein? Bittori?

ZABALA

Horixe bera. Antzarrak perratzera bidali nau; nik ere bidaliko nuke beste norabait baina...

PERNANDO

Atso hori tratatzen jakin behar duk, bestela jai daukak eta, tratatzen.

ZABALA

Tratatu? Ipurtzulotik bainaparda bai sartu!

PERNANDO

Motell, hori duk jenioa hori! Horrenbesterako ere...

ZABALA

Egia duk eta. Atso zahar horri ogi koskorrik aterako dionik ez duk Amezketan jaio.

PERNANDO

Hori ere ikusteko zegok. Baietz ni orain joan eta Erretoreak daukan kalabazarik ederrena ekarri!

ZABALA

Nola egin behar duk hori?

PERNANDO

Utzi nere kontu. Abilezia behar horretarako! Baietz ekarri berak emanda.

ZABALA

Ezetz.

PERNANDO

Zenbat jokatuko diagu?

ZABALA

Lau botila ardo.

PERNANDO

Hiru txikikoak?

ZABALA

Litrokoak.

PERNANDO

Konforme. (*Eskua ematen diote elkarri.*) Hik itxoin ezak hemen eta ikusiko duk nola ekartzen dudan.

ZABALA

Bestela, botila ardoen bila joango nauk.

PERNANDO

Hik nahi duan bezala. Apari-merienda ederra egin behar diagu gaur.

(*Iluna*)

9. AGERRALDIA

(Zabala joan da; Erretorearen etxe atarian Fernando deika.)

BITTORI

(Barrutik) Zein da?

PERNANDO

Pernando.

BITTORI

(Atea zabaldu ondoren; jenio biziz eta zakar) Zer behar duk?
Don Gaxpar ez zegok orain etxean.

PERNANDO

Badakit, berak bidalita etorri naiz eta.

BITTORI

Zer esan dik ba?

PERNANDO

Zera: bere baratzeko kalabazarik ederrena ematen didala.

BITTORI

(Ondo aditu ez balu bezala) Zer?

PERNANDO

Horixe: kalabaza galanta agindu didala.

BITTORI

(Susmo txarrez) Egia al da hori?

PERNANDO

(Zerura begiratzuz) Jainkoak begirutzen digula bezain egia haundia.

BITTORI

Ez zekiat ba. Berari galdetu beharko zioat badaezpadaere.

PERNANDO

Galdetu, galdetu nahi duzun guztia.

BITTORI

Hik itxoin ezak hemen ni etorri arte, eta ikusiko duk gezurra bada.

PERNANDO

Txintxo txintxo geratuko naiz.

(Bittori desagertu eta gaikaldeko leihoan azaltzen da; oihuka.)

BITTORI

Don Gaxpar, Don Gaxpar!

DON GAXPAR

(Ikusten ez dugula; urrun somatzen da bere ahotsa) Zer behar dun?

BITTORI

Izan al da Fernando lehen hor?

DON GAXPAR

Bai, hemen izan da.

BITTORI

Eta zer agindu dio berorrek?

DON GAXPAR

Zer? Kalabaza galanta!

BITTORI

Benetan?

DON GAXPAR

Horixe besterik ez zinan merezi.

BITTORI

Berorrek ikusiko du.

(Jeitsi egiten da Bittori, eta handik piska batera berriro azaltzen da atarian, eskuetan kalabaza haundi bat duela; Pernandori ematen dio.)

BITTORI

Tori, har ezak! Ez zekiat ze hegohaizek jo duen gure Erretorea baina.

PERNANDO

Nik, agindutakoa jaso besterik ez dut egin.

BITTORI

Bai, bai. Izango duk hau ere hire maltzurkeria horietakoren bat.

PERNANDO

(Irriparrez) Oso oker zaude Bittori, oso oker.

(Iluna)

10. AGERRALDIA

(Kalean berriro Pernandok eta Zabalak egiten dute topo, honek lau botila ardo daramatzala, hark kalabaza; biak umore onean.)

ZABALA

Arraioa! Lortu duk eta.

PERNANDO

Zer uste huen ba? Esan diat, atso hauekin ondo jokatzeko jakin behar dela.

ZABALA

Xirriren bat edo beste egingo hion hik e?

(Zabalak botila bat ematen dio Pernandori, berak beste bat zabaltzen duela.)

PERNANDO

Berak nahi bai baina... *(Txurruta eginez)*

ZABALA

Hi haiz hi tipoa! Orain botilak nik ordaindu behar. *(Honek ere zurrut.)*

PERNANDO

(Kalabaza erakutsiz) Nik janaria ekarri diat; beharko hik edaria jarri!

ZABALA

Parranda galanta jo behar diagu gaur. *(Beste zurrut baten ondoren bertsotan hasten da.)*

Pazkoazkoaz hitz egitea
ez zaidak atera merke.
Hirekin apustuan hastean
gorra egin diat nik e.
Joango hintzela esan didak hik
haruntz kalabaza eske.
Nola arraio engaina deken
gustora jakingo nitek.

PERNANDO

(Honek ere bertsotan erantzun.)

Adarra jotzen hasi haiz eta
nik ez nian ezer behar.

Erretorean baratzen zeuden
hainbat kalabaza edar.
Lau botil ardo galtzeagatik
etzak behintzat egin negar.
Aseturik geldituko dituk,
gaurkon pare bat neskazar.

ZABALA

(Pernandori lepotik heltzen diola, adiskidetasun keinuan.)

Ardoa ordaindu diat eta
gaurkoan hik lasai edan.
Trago batzuek eman ondoren,
hik ba al dakik nongoa dan?
Neskame eta neskazar hoiek
aipatuz urrengo txandan,
etxen hire zai dagonarekin
ez ote daukak naiko lan?

PERNANDO

(Besoan ukabilkadatxo bat ematen diola.)

Jainkoi eskerrak hemen ez zegok
Erretorea aditzen.
Pentsatu arren ez geradela
bide zuzenen ibiltzen;
zakurrei ere beti hezur bat
nola ez zaien gustatzen,
bizitzan zehar ikasi diat
etxe ta auzo zerbitzen.

*(Biak besotik helduta, botilari txurrutadak eginez eta kantari,
badoaz atzekaldetik.)*

(Iluna)

11. AGERRALDIA

(Gaua da eta erdi ilunpetan ageri da dena; Pernoando dator kallean kantari, mozkor mozkor eginda; aurrena kanpotik entzuten dugu, eta geroxeago sartzen da.)

PERNANDO

(Kantari) Hau dek, hau dek, hau dek umoria... *(Balantzaka sartzen da)* kontsolatzeko, kontsolatzeko, euskaldun jendia! Kalia gora... *(sarrailan hasten da atea zabaldu nahiz, eta ezin asmatu-rik)* Demonio! Ez diat asmatzen maratilarekin. Lekuz aldatu ote didate atea? Joxepa! Kalia gora zezena ai ai ai ai. Non ote dabil orain andre arraio hori? Joxepa! Ez dut berehalakoan zabalduko atea. Joxepa! Zabaldu atea! Joxepa, sartu egin nahi dudala! *(ixilune bat, sarrailan jirabiraka dabilen bitartean; ondoren piztu samartuta arituko da)* Arraioa! Barrutik itxi du eta. Baina ze demon- tre...? Itxi egin dit. Andre maripurtzil horrek... Joxepa, zabal ezazu atea, sorgin horrek ¡Puñeta; hemen geratu behar ote diat gau osoan? Presko egiten dik ba! *(besoak igurtziz, saltoka; geroxeago mantsoago)* doxepa, zabaldu atea, hotzak nago eta.

JOXEPA

(Leihoan azalduz; haserre) Berotu nahi baduzu, joan zaitetz sa- gardotegira, zure lagunekin mozkorkerian aritzera.

PERNANDO

(Arrenka) Joxepa, faborez!

JOXEPA

Ez faborez eta ez mesedez. Etxe honetan ez zara berriro sartu- ko.

PERNANDO

Joxepa, hitz ematen dizut zintzotuko naizela hemendik aurre- ra; lana ere egingo dut.

JOXEPA

Eta nik sinistu...? Jai!

PERNANDO

Zabaltzen ez badidazu, nere burua erreka putzura botako dut.

JOXEPA

Bota ezazu ba.

PERNANDO

Bota egingo dudala!

JOXEPA

Bota ba.

PERNANDO

(*Urrunduz*) Goseak hil beharko dute gure seme-alabek.

JOXEPA

Moldatuko gara zu gabe ere; zurekin baino hobeto akaso.

PERNANDO

Banoa.

JOXEPA

Zoaz ba.

(*Pernando atera egiten da, bidean dagoen harri zabal edo haundi bat harturik; ikusleei keinu bat egiten die; desagertu eta zerbait uretara erortzearen hotsa aditzen da laister, eta berehala Pernando korrika eta isilka azaldu eta Erretorearen etxe kantoian izkutatzen da, irrifarrezka; Joxepa, izututa, erdi jantzita, asaldatuta eta zalapartak aterako da segituan, garraisika.*)

JOXEPA

(*Aurrena ikusten ez dugula*) Ai ene! Pernando! Zer egin du gure Pernandok! (*atetik azaltzen da*). Ai ene! bere burua bota duela, gure Pernandok bere burua bota duela; Pernando! (*senarra joandako lekutik desagertzen da eta builaka segituko du; Pernando orduan bere txokotik atera eta etxean sartzen da arineketan, atea azkar asko itxiz*) Pernando, non zara? Ai gure Pernando! Ai ene! (*berriro agertzen da Joxepa, joandako bidetik, poliki eta makal, negarrez eta etsita*) Ai ene! Nere kulpagatik hil zaigula Pernando! Ai! Ez zen ba hain gizon txarra ere: alfer samarra, hori bai, baina gaiztoa ez. Ai gure Pernando! Zer egingo ote dut orain seme-alabekin! Ai ene! Nere kulpagatik bota duela burua. (*Negarrez ari dela ateraino iristen da eta harritu egiten da itxita ikustean.*) Jesus! Itxita? Nik ez dut ba atea itxi. Nola liteke...? Nola liteke...?

PERNANDO

(*Leihora azalduta*) Nola litekeen? Asma ezazu.

JOXEPA

(*Amorratuta*) Pernando! Zerri zikin halakoa! Sartu didazu orain ere ziria.

PERNANDO

Haundiagoa sartu nahi zenidan zuk.

JOXEPA

Zabal ezazu oraintxe bertan ate hori.

PERNANDO

Bai, zuk zabaldu didazun bezalaxe egingo dizut.

JOXEPA

Pernando!

PERNANDO

Ondo lo egin.

JOXEPA

Pernando, zabaldu, Pernando!

BITTORI

(Bere leihora azalduta) Ze iskanbila da hori?

PERNANDO

(Kantari hasten da, aldizka Joxepari eta Bittoriri begiratzen diela.)

Beti etxera goiz etortzeko
aukera ez da izaten.
Ni kanpoan hotzak gelditzeak
penik ez zion ematen.
Ni're oihuka jardun naiz baina
orduan ez zara irten.
Txakurran ordez andrea daukat
etxe zai jarria aten.

(Iluna; hemen buka daiteke nahi izanez gero lehenengo partea; atsedena luzexeagoa izan daiteke eta hasiera nahiz bukaeran bezala herri musika ipin daiteke entzungai.)

12. AGERRALDIA

Pernandorenean sesioan ari dira senar-emazteak; seme-alabak txokoren batean daudela Pernandok eta Joxepak hitz gogorak esaten eta trasteak botatzen dizkiote elkarri.)

JOXEPA

Alproja, alfer zikina! Alde egin ezazu hemendik zure lagun mozkor horiekin.

PERNANDO

Alde egin ezazu zerorrek hemen bizi nahi ez baduzu.

JOXEPA

Bizi? Etxe honetan ez da bizitzerik izango zu bertan zauden artean.

PERNANDO

Eta nondik jango duzue zuk eta umeek ni joan eta gero, e?

JOXEPA

Ezer askorik ez duzu orain ere ekartzen.

PERNANDO

Ekartzazu ba zerorrek, horren erraxa dela uste baduzu.

JOXEPA

Alperra, zikina, ustela! Sekula santan ez duzu lan egiterik pentsatuko.

PERNANDO

Hori da hori, aho finekoa izatea!

JOXEPA

Amorratu egiten naiz zure ondoan.

PERNANDO

Joan zaitetz ba elizara, Don Gaxparren magalean negar egitera.
(*Une horretantxe Don Gaxpar azaltzen da ate zabalduan.*)

DON GAXPAR

Hara, hara, neri deika ari al zinetan?

JOXEPA

(*Umil, amorrazioa utzita*) Barka beza, Erretore Jauna, hau ez da etxearen kusidatea...

DON GAXPAR

(*Zoruan dagoen lapikoren bati ostikoa emanaz*) Konturatu naiz bai, ontzi hauek ez zutela lurrean egon behar. Burrukan aritu zarete ala?

JOXEPA

Ai ene! Adi beza, Don Gaxpar; alper zikin honek ez du lanik egin nahi. Beti sagardotegian sartuta dabil bere lagun mozkor horiekin, andrea eta seme-alabak dituela ahaztuta eta...

PERNANDO

Hori ez da egia.

JOXEPA

Esazu orain ezetz!

PERNANDO

Lagunekin biltzerik ere ez daukat ala? Nik etxea ordea ez dut sekula ahazten.

JOXEPA

Bai, mozkortu eta gero lotara etortzeko gogoratzen duk hik.

DON GAXPAR

(*Besoak altxatuz, paketu nahian*) Bueno, bueno, bueno! Ze iskanbila da hau? Kristauen etxean pakea behar da lehenbizi, pakea nagusi. Bestela ez dago ezer onik. Pakerik ez badago, ze ejenplu emango diezue seme-alabei? Zer ikasiko dute etxean? Hik, Pernando, gehixeago saiatu beharko huke lanean, kalabazarena bezalako gezurrekin ez zegok urrutira joaterik eta.

PERNANDO

Barba beza, baina ez zen gezurra izan; nik entenditu nion...

DON GAXPAR

Ondo asko zekiat nik zer entenditu huen, Pernando. Apaizek zintzoak izan behar diagu baina inuxenteak ez. Eta hi ere askotan gaizto samarra haiz baina kirtena ez. Horrexegatik etorri nauk gaur hiregana.

(*Joxepa gortina atzeko txokora doa seme-alabekin.*)

PERNANDO

Esan beza zer nahi duen, eta nere eskuetan baldin badago laguntzea...

DON GAXPAR

Hara. Badiat nik esku artean arazo txiki bat, korapilatsu xa-

marra eta, ezer egin baino lehen hirekin hitz egin nahi niake horren gainean.

PERNANDO

Nahi duen guztia, Don Gaxpar; esan beza!

DON GAXPAR

Ez, orain ez Fernando. Arantzaren bat edo beste izan dezakeen gorabehera duk, eta nahiago niake patxaraz hitz egingo bagenu. Zer iruditzen zaik gaur nere etxera bazkaltzera etortzea.

PERNANDO

(*Txoratuta aurrena*) Zoragarri! Bueno, konforme nagoela esan nahi nion.

DON GAXPAR

Orduan, eguerdian hire zain egongo nauk bazkaltzeko. (*Aldentzeko keinuaz*)

PERNANDO

Ez bildurrik izan. Han izango naiz sinfalta. (*Atea zabaltzen diola*)

DON GAXPAR

Gero arte ba. Jainkoak egunon dizuela denoi.

PERNANDO

Baita berorri ere.

DON GAXPAR

Eta... sesio horiek Fernando, ahal dela baztertu egin behar dira, ebitatu. (*Irteten du*)

PERNANDO

Bai jauna.

(*Iluna*)

13. AGERRALDIA

(*Pernandorenean, gurasoak eta Martin Joxe, seme nagusia; Pernando txukun jazten ari da, Joxepak laguntzen diola.*)

PERNANDO

Gaur behintzat ez duzue kejarik izango. Aho bat gutxiago bazkaltzeko.

JOXEPA

Guk baino hobetoxeago ere bazkalduko duzu.

PERNANDO

(*Harro*) Erretore Jaunak gizon inportanteak gonbidatzen ditu eta, bere gauzen gainean hitz egiteko.

MARTIN JOXE

Nik ere bazkaritara joan nahi dut.

PERNANDO

Isilik egon hadi.

MARTIN JOXE

(*Temoso*) Nik bazkaltzera joan nahi dut.

PERNANDO

Isilik egoteko! Ez al duk aditu Don Gaxparrek gorabehera bat-tetaz hitz egiteko gonbidatu nauela?

MARTIN JOXE

(*Kaska gogor*) Nik bazkaldu egin nahi dut!

PERNANDO

Kaskarreko bat emango diat, e!

MARTIN JOXE

Bazkaldu egin nahi dut!

PERNANDO

(*Joxepari*) Emaiozu ume honi jateko zeozer, ea isiltzen den.

JOXEPA

Atzoko salda hondar hotza ematen ez badiot...

PERNANDO

Nahi duzuna egin ezazu, ni banoa eta.

MARTIN JOXE

(*Garraisika*) Nik bazkaltzera joan nahi dut.

JOXEPA

(*Zartadako bat emateko keinuz*) Ez al dik aitak esan bakarrik joan behar duela?

MARTIN JOXE

Nik bazkaldu egin nahi dut!

JOXEPA

(*Zaplazteko batzuk emanez*) Tori bazkaria! Tori! Gehiago nahi duk?

(*Aharrantzaka hasten da umea*)

PERNANDO

Etzazu hola jo ume gaisoa.

JOXEPA

Zer nahi duzu egitea? Ez al duzu zerorrek esan ezin duzula eraman?

PERNANDO

(*Makurtuz, negarrez ari den Semeari bizkarretik helduz*) Aizak, nik gustora eramango hinduket, baina ezin diat. Don Gaxparrek halaxe esan zidak: «etorri hadi bazkaltzera biok hitzegiteko». Eta beste inor eramaten badut berari ezer esan gabe haserretu egingo duk. Ulertzen duk?

MARTIN JOXE

(*Zotinka*) Nik bazkaltzera joan nahi dut.

PERNANDO

Begira, hurrengoan nerekin etorriko haiz; edo bestela, bueltan, ahal izanez gero, puxketa ederrenak ekarriko dizkiat kolkoan gordeta; konforme?

MARTIN JOXE

(*Serio*) Nik bazkaritara joan nahi dut.

JOXEPA

Eman egingo diat; eman egingo diat isiltzen ez bahaiz.

PERNANDO

Ume honekin ez dago zereginik; zu bezalako kaskagorrra aterra da.

MARTIN JOXE

(Berriro aharrantzaka) Nik bazkaltzera joan nahi dut.

PERNANDO

(Eskua altxatuta zartadakoka hasi behar zuen Joxepa geldieraziz) Geldi! Eraman egin beharko dut azkenean.

JOXEPA

Nola eramango duzu ba?

PERNANDO

Moldatuko naiz nola edo hala. *(Poz-pozik dagoen Semeari)*
Aizak, ken itzak sudurretik kandela horiek, hori ez duk apaizaren
etxera joateko pigura eta!

(Iluna)

14. AGERRALDIA

(Don Gaxpar etxera ailegatu berria da, eta kapelu eta gainerakoak kentzen dihardu, Bittori etxeko lanetan ari den bitartean.)

DON GAXPAR

Bittori! Gaur beste lagun batentzako bazkaria ere prantatu behar dun, gonbidatua dinagu eta.

BITTORI

Ederki. Gaurko gainera amurraiak ditugu.

DON GAXPAR

Primeran! Asko gustatzen zaizkiola uste dinat.

BITTORI

Eta zein da ba, bazkaltzera datorren gonbidatua?

DON GAXPAR

Zein? Pernando.

BITTORI

(Haserre eta harriturik) Pernando?

DON GAXPAR

Bai; horixe bera.

BITTORI

Alfer, zikin, mozkor, narrats, alproja, gezurti, lapur hori?

DON GAXPAR

(Irrifarrezka) Ez dion kalabazarena barkatu, e?

BITTORI

Ezta barkatuko ere! Zer uste du ba lotsagabe horrek?

DON GAXPAR

Hori ere ez zegon ondo, Bittori. Lagunurkoari barkatu egin behar zaizkion egiten dizkigun gaiztakeriak.

BITTORI

Barkatuko diot ba, baina horrek ez du etxe honetan amurrai haundirik jango, nik ahal dudala.

(Iluna)

15. AGERRALDIA

(Kalean; beren etxetik atera eta Erretorearenera doaz Fernando eta Semea, ahal duten neurrian eta mailan dotore jantzita.)

PERNANDO

Hi kalean geratu hadi, isil isilik eta inork ikusten ez hauela; konprenitu duk? *(Semeak baietz buruaz)* Ni barrura sartuko nauk, eta deitzen diadanean sartu barrura, esan bezala; aditu duk? *(Berriro baietz Semeak)*

(Erretorearen etxeko ate aurrean Fernando deika; semea bazter batean; Bittori ateratzen da.)

BITTORI

Zer behar duk gaur, beste kalabaza bat?

PERNANDO

Ez ba, ez ba. Don Gaxparrek bazkaltzera gonbidatu nau eta...

DON GAXPAR

(Etxe barrutik) Sartu, Fernando, sartu barrura lotsarik gabe.

BITTORI

Hik lotsa zer den ere ez dakik eta. Segi.

PERNANDO

Jesus! Hori da umorea, hori.

(Iluna)

16. AGERRALDIA

(*Erretorearen etxean, mahai inguruan Don Gaxpar eta Pernaldo; Bittori batetik bestera gauzak ekarri eta eramanez.*)

DON GAXPAR

Eseri Pernaldo, eta berehalaxe hasiko gaituk bazkaltzen.

PERNALDO

(*Eseriz*) Bai baina, aurretik mahaia bedeinkatu beharko dugu ba?

DON GAXPAR

Horixe duk arrazoia. Oso ondo egin duk gogoratzean. Ezagun duk goizeko erritaren ondoren hasi haizela zertxobait zuzentzen.

PERNALDO

Gure etxean nik bedeinkatzen dut beti mahaia eta.

DON GAXPAR

Ederki zegok hori, ederki. Hemen ere, nahi baldin baduk, bedeinka ezak herorrek mahai hau.

PERNALDO

Ez al da gehiegizko atrebentzia?

DON GAXPAR

Ez horixe! Bedeinka ezak bildurrik gabe.

PERNALDO

Aitaren... Espiritu Santuaren izenean, amen.

DON GAXPAR

Pernaldo, hori ez duk hola. (*Pernaldo harritu antzean geratzen zaio begira*) Gaizki egin duk. Hasi hadi berriz ere.

PERNALDO

Aitaren... Espiritu Santuaren izenean, amen.

DON GAXPAR

Oker ari haizela! Ahaztu egin zaik Aitaren egiten ala?

PERNALDO

Ez, ez.

DON GAXPAR

Ea ba. Esazak berriro; baina zuzen!

PERNANDO

Aitaren... Espiritu Santuaren izenean, amen.

DON GAXPAR

(*Asaldaturik*) Eta semea? Non utzi duk semea?

PERNANDO

Semea? Hortxe utzi dut, atarian, baina oraintxe deituko diot nahi badu: hi, Martin Joxe, hator hona azkar, hire beharra omen zegok eta!

(*Semea sartu bezain laister Don Gaxpar farrezka hasten da, eta ondoren Pernando eta Semea bera ere bai.*)

DON GAXPAR

(*Algara artean*) Hi haiz hi Pernando! Orain ere egin didak adar jotze ederra.

PERNANDO

(*Berdin*) Semea ez al zuen behar? Hemen dauka ba.

DON GAXPAR

(*Berdin*) Gera dadila, gera dadila gixajoa ere bazkaltzen, otordu ederren paltan sumatzen diat eta.

(*Hirurak lehertzeko zorian daudela Bittori sartzen da, azpil edo beste ontziren batekin.*)

BITTORI

(*Piperra baino serioago*) Hementxe duzue bazkaria; on degizuela. (*Badoa*).

DON GAXPAR

(*Estalkia altxatuz*) Hara, amurraiak. Zuen gustokoak al dira?

PERNANDO

Oso. (*Semeak ere baietz buruaz*)

DON GAXPAR

Hasi ba jaten. (*Banatu egiten dizkie*)

(*Pernandok platereko amurraia hartu, eta aho ondoan jarriz zerbait esateko keinua egiten dio, ondoren belarrira eramanez, entzuteko imintziaz. Horren ostean gauza bera egiten du semearen platereko amurraiarekin. Don Gaxparrek harriturik begiratzen dio.*)

DON GAXPAR

Pernando, jakin al liteke zertan ari haizen?

PERNANDO

Badaki berorrek nola osaba bat dugun Ameriketara joana? Ba, amurraiak eta igerilari onak direnez eta itsasora ere joaten direnez, galdezka ari nintzaien, ea Ameriketara joandako nere osabaren berrri ba ote duten.

DON GAXPAR

(Irriz) Eta zer esan diate amurraiek?

PERNANDO

Zer esango zidaten ba? Hauek gazteak direla oso eta haren entzuterik ere ez dutela. Baina beste gauza bat ere esan didate.

DON GAXPAR

Zer duk ba, zer duk?

PERNANDO

Badela beste amurrairen bat etxeko sukaldean hauek baino hazixeagoa, eta hark beharbada izan dezakeela osabaren aditzea.

DON GAXPAR

(Une horretan sartzen ari zen Bittoriri) Aditu dun, Bittori? Ekar ezan amurrai hauek baino hazixeagoren bat, Pernandok osabarekin hitz egin dezan.

(Purrustaraka joaten da Bittori)

DON GAXPAR

(Isilik eta geldi jaten ari den semeari) Eta? Amurraia goxoa?

MARTIN JOXE

Bai. *(Lotsati antzean)*

DON GAXPAR

Eta, eskolan eta ondo?

MARTIN JOXE

Bai.

DON GAXPAR

Eta amari laguntzen al diok etxeko lanak egiten?

MARTIN JOXE

Bai.

DON GAXPAR

Hau duk mutiko txintxo hau!

PERNANDO

Aita bezalakoxea.

DON GAXPAR

Hobexegoa ateratzen ez baduk...

BITTORI

(Une horretantxe heldua) Hortxe duzue, nahi duzuen guztia galdetzeko. *(Badoa)*

DON GAXPAR

Ea Pernando, proba egin ezak.

(Pernandok berriro egiten du operazioa, misterio haundiz, denbora gehiago pasatuz.)

DON GAXPAR

Ezer esan al dik?

PERNANDO

Honek aditu omen du zurrumurruren bat.

DON GAXPAR

Besterik ez?

PERNANDO

Berak ez. Baina sukaldean ba omen da bera baino zaharrago bat, eta hark ba omen daki osabaren berri.

DON GAXPAR

Hau duk hau Pernando! *(farrezka)* Bittori, ekatzen sukaldeko amurrai tzar hori, Pernandori ziria sartuko dionik ez da jaio eta.

BITTORI

(Beste ontzi batekin datorrela, umore txarrez) Susmatzen nuen nik bai, Pernando atean ikusi orduko, zeinek jango zizkigun amurrai ederrenak.

DON GAXPAR

Ez haserretu horregatik, bihar ere izango dinagu zerjana eta.

BITTORI

(Joanez) Beste batzuk lan haundirik gabe lortzen dute ordea.

PERNANDO

(Lehengo operazioa azkarki egin du, eta amurraia azkar jaten hasiz, ahoa beteta) Jaungoikoak denontzako adina janari ematen duen bitartean...

DON GAXPAR

Jan ezak lasai, motell, ahoa beteta hitz egin gabe.

PERNANDO

(*Ahoa beteta*) Eskerrik asko.

(*Une batzuez ardoari zurrut ederrak emanez eta presaka janez arituko da Pernoando; handik piska batera gelditu egingo da, beteta, gustora; Don Gaxparrek eta semeak ere bukatua dute nonbait.*)

DON GAXPAR

Eta? Zer esan dik amurrai zaharrak?

PERNANDO

A! Ezagutzen duela, eta osaba oso ondo dabilela. Ni ere ez nago bat ere gaizki oraintxe.

DON GAXPAR

Ederki! Ni ere bapo geratu nauk. Hitz egingo al diagu orain gure gorabehera horretaz?

PERNANDO

Berorrek nahi duen bezala. Hara, Martin Joxe, joan hadi etxera, gaurko otordua egin duk eta. (*Badoa semea*)

DON GAXPAR

Bittori, ekar ezan txokolatea Pernoando eta biontzat. Hitz egin bitartean hartuko diagu gu biok.

PERNANDO

Txoko... zer? Ze fruta klase da hori?

DON GAXPAR

(*Farrezka*) Ez, motell, ez! Txokolatea edari beltz bat duk, etxe fin guztietan hartzen dutena.

PERNANDO

Ardoa bezalakoa?

DON GAXPAR

Ez, ez, gozoa. Ameriketatik ekarritako landare batetik ateratzen diate.

PERNANDO

(*Ahozabalik*) A! Patatak bezala.

DON GAXPAR

(*Irriz*) Hala moduz.

BITTORI

(*Bi katilu eta beste ontzi batekin etorriz; beti bezala jenioz*) Hemen duzue zuen txokolate zorionekoa. (*Badoa gauzak mahai gainean utzita*)

DON GAXPAR

(*Txokolatea zerbituz*) Hara: badakik nola txerria hiltzean auzoei odolkiak eta ematen zaizkien, eta nola nik ba... apaiza naizenez, ez dudan orain arte txerririk hazi eta hill.

PERNANDO

Ederra dago txokolate hau.

DON GAXPAR

Gustatu egin zaik, e? Ba, zera: aurtan nik ere txerria hazi diat, jendeak esan ez dezan Erretorea beti hartu eta hartu dabilela sekula ezer eman gabe; eta badakik, nere prolema zera duk: hazitako txerria kaskarra dela oso, eta odolkiak eta banatzen hasiz gero ba, ezer gabe geratuko naizela.

PERNANDO

Ez baita xamurra izaten hori: norberak hazi eta besteei banatu behar oso-osorik.

DON GAXPAR

Horixe, horixe. Horregatik deitu diat, ea irtenbideren bat asmatzen ote duan edo.

PERNANDO

Horrek konponbide errexa du, Don Gaxpar.

DON GAXPAR

(*Aztoratuta*) Eman ba, esan.

PERNANDO

Hara: berorrek txerria hil egin behar du, eta atarian zintzilik jarri.

DON GAXPAR

Jende aurrean?

PERNANDO

Bai, bai; agerian. Jendeak ikusteko moduan. Orduan, txerria hozten utzi eta gero, goizaldean, inor jeiki baino lehen berori joan daiteke eta etxean gorde txerria.

DON GAXPAR

(*Kilikaturik*) Eta? Eta?

PERNANDO

Hortik aurrerakoa erraxena. Berorrek korrika eta zalapartaka atera behar du kalera, «txerria eraman dute, eraman egin dutela txerria» garraisika.

DON GAXPAR

Eta? Eta?

PERNANDO

Orduan denek sinistuko diote, eta txerria lasai asko jan ahal izango du.

DON GAXPAR

(Pozarren) Hori duk eta. *(Une batzuez pentsati egon ondoren, kezkatu)* Baina, hori ez ote da pekatu izango?

PERNANDO

Norena da txerria?

DON GAXPAR

Nerea!

PERNANDO

Eta norberarena dena gordetzea pekatu al da?

DON GAXPAR

Ez baina... lapurtu egin didatela esanez gero... ez al naiz gezurretan ari?

PERNANDO

Ez horixe! Berorrek esaten badu txerria ez dagoela utzitako lekuan, gezurra al dio?

DON GAXPAR

Ez ba.

PERNANDO

Eta esanez gero txerria eraman egin dutela, gezurra esaten al du?

DON GAXPAR

Ezta.

PERNANDO

Hortaz?

DON GAXPAR

Arrazoia duk, Pernoando. Estuasun ederretik atera nauk.

PERNANDO

Lagunak ere horretarako gaude eta. (*Kantari hasten da, bertso-tan*)

Txerri bat hazitzea
berorren afana.
Konseju eske dator
Pernandorengana.
Ez da pekatu hartzea
norberana dana.
Horrekin izango du
negurako jana.

DON GAXPAR

Pentsa ezak; nik pekatu egitez gerotan ez nieke halako erabakirik hartuko, baina hori garbi garbia duk.

PERNANDO

Ama Birjina bezain garbia.

DON GAXPAR

Horrenbeste ere ez, e; txerri kontuetan horrenbeste ere ez.

PERNANDO

Ezetz? Txerria Ama Birjina bezalakoxea da: dena da ona; dena aprobeztatzen da.

DON GAXPAR

Ez zekiak nik hori herejia ez ote den; baina hi lasai egon hadi, Pernando: txerria neretzat gordeta ere, izango duk hiretzako xolo-moren bat edo.

PERNANDO

(*Altxatuz*) Eskerrik asko, Don Gaxpar; estimatzen diot. Eta gaurko bazkaria ere bai.

DON GAXPAR

(*Altxatuz*) Ez horregatik.

PERNANDO

(*Ate aldera*) Bai jauna: bat etorri beharrean bi etorri gara lehenaz gainera eta.

DON GAXPAR

(*Atea zabaltzen dio*) Lasai alde horretatik, lasai; eta badakik: ezer behar izanez gero...

PERNANDO

Bai, bai; bueno, joan egin beharko dut; artaldea ere bakarrik utzi dut eta. (*Ate kantoian*)

DON GAXPAR

Bai, hire ardiek ez ziaten gaur hik adinako otordurik egingo.

PERNANDO

Ez horixe. Eta eskuminak Bittoriri, amurraiengatik eta txokolateagatik. (*Ateraz*).

DON GAXPAR

Esango zioat. Hurren arte.

PERNANDO

Bai; hurren arte.

(*Iluna*)

17. AGERRALDIA

Erretorearen etxe aurrean; Don Gaxparrek txerri hila atera eta ate ondoan jartzen du, kako batetik zintzilik, jendea (herritarrak), esamesaka ari den bitartean).

HERRITARRA 1

Hara, aurten Erretore Jaunak ere hil du txerria.

HERRITARRA 2

Kaskar samarra da baina.

HERRITARRA 1

Aizu! Ez da gutxi. Orain arte ez du sekula txerririk hil ere egin.

HERRITARRA 2

Bai; aurten behinipehin Erretorearen odolkiak jateko aukera izango dugu.

DON GAXPAR

(Aurreko aditu duela, eskuaz sabelean joz) Nere odolkiak jateko pixka bat gehixeago itxoin beharko duzue.

HERRITARRA 2

(Larri samar) Ez beza txartzat hartu, Don Gaxpar, guk esan nahi genuen...

DON GAXPAR

Bai, bai, bazekiat zer esan nahi huen, eta arrazoia ere ez zaizue falta. Konturatu naiz nik ere banatu behar ditudala txerrikiak, beste guztiek bezala.

HERRITARRA 1

Guk ere bidaliko diogu aurten, urtero bezala.

HERRITARRA 2

Baita guk ere.

DON GAXPAR

Eskertuko zaizue, eskertuko zaizue.

(Iluna)

18. AGERRALDIA

(Gaua da; ilargiaren argi ahula; Fernando bere etxetik ateratzen da; isil isilik, poliki poliki abiatzen da Erretorearen etxerantz. Hara iristean bazter batera eta bestera begira aritu ondoren, ikusleei isiltzeko keinua eginez txerria kakotik kendu eta berak zeraman zakuan sartzen du. Zakua bizkar gainean hartu eta berriro isilka eta poliki bere etxe aldera doa, alboetara begira. Bide erdian geratu eta ikusleei begira farre txiki bat egingo du.)

(Geroxeago, argi gehixeago dagoela, Don Gaxpar atoratzen da bere etxeko atetik, hau ere kontuz, isilik eta astiro astiro. Txerriak egon behar zuen lekuan eskua jarri eta ezer ikuitzen ez duela nabaritzean harritu egiten da eta haztamuka hasi.)

DON GAXPAR

(Gero eta larriago, gero eta ozenago ahots eta keinuetan.) Hemen egon behar zuen, hementxe. Non da nere txerria? Hemen utzi nuen ba atzo. Ai ene! Non da nere txerria? Ai ere? Non da nere txerri maitea? Hemen utzi nuen, hementxe bertan. Ai nere txerria! Ai ene! Lapurtu egin didatela, lapurtu! Non ote da nere txerria? Hemen utzi nuen eta, nere txerri maitea, nere txerri bihotzekoa, nora aldegin duk? Nork eraman hau? Nor izan duk gizagaizto petral nazkagarria? Ai ene! Ene!

(Eliza aldera joaten da eta kanpaiak hasten dira entzuten; Herritar batzuk azaltzen dira, eta Don Gaxpar haien aurrera joanik oihuka eta arrenkuraka hasiko zaie.)

HERRITARRA 1

Zer gertatzen da?

HERRITARRA 2

Ez dakit; kanpaiak jo dituzte eta...

DON GAXPAR

(Histeriko samar.) Txerria lapurtu didate, txerria. Jesus, Maria eta Jose. Nor izan ote da lapur gaizto, zital, zikin, zikoitz, zerri mardikatua? Nore txerritxo gaisoa nork eraman dit? Lapurtu egin didatela, lapurtu. Hainbeste neke kostata hazitako txerria, hozten utzi eta lotsagabe batek lapurtu. Nola liteke? Ai ene! Nere txerri maitea, nere txerri kuttuna. Elizatik botako dut lapurra, ez diot sekula barkatuko eta inpernuko zuloan erre beharko du, oraintxo bertan azaltzen ez bada. Luziferren sutan kiskali beharko du. Ai nere txerri gozoa, gizasemeak baino hobea hintzena, inori kalterik egiten ez hiona, errukirik gabeko alu sasiko malapartatu batek eraman hau akabatu eta jateko kupidarik gabe. *(Ia negarrez eta amorrus bukatzean.)*

HERRITARRA 1

Berak zer egiteko asmoa ote zuen ba?

HERRITARRA 2

Auskalo!

(Iluna)

19. AGERRALDIA

(Don Gaxpar, Pernandoren otxean ate joka, larri eta estu.)

DON GAXPAR

Pernando, Pernando, zabaldu, Pernando, zabaldu azkar, Pernando.

PERNANDO

(Atera azalduz, izugarrizko patxaraz.) Zer dugu ba halako prezaz?

DON GAXPAR

(Urduri, hitzik atera ezinik.) Pernando, txerria... Pernando... Txerria...

PERNANDO

Zer dela eta halako larritasuna. Lasai bedi, Don Gaxpar, lasai.

DON GAXPAR

Txerria lapurtu didate, Pernando, txerria, lapurtu egin didate...

PERNANDO

Holaxe, Don Gaxpar, holaxe.

DON GAXPAR

Baina, lapurtu egin didatela, Pernando, txerria lapurtu.

PERNANDO

Holaxe, Don Gaxpar. Hori esan eta denek sinistuko diote.

DON GAXPAR

Egia dela Pernando, txerria lapurtu egin didatela.

PERNANDO

Hori da ba esan behar duena, hori.

DON GAXPAR

Baina, Pernando, ez dela gu biok hitz egindakoa, ez. Bene-benetan lapurtu didate, egiazko lapurrek.

PERNANDO

(Harrituarena eginez) Ene bada! Nola liteke ba hori?

DON GAXPAR

Gaur, goizean goizik, etxetik atera nauk, hik esan bezala, txerria izkutuan hartzeko asmotan eta zera, besteren bat ni baino goiztiarrago ibili eta eraman egin dik txerria. Ai nere txerri gaisoa!

PERNANDO

Eta... nor izan ote da?

DON GAXPAR

Nik al dakit ba! (*Erdi negarrez*)

PERNANDO

Ene! Ene! Holakorik egundaino! Lotsagabea behar du gizonak apaizari txerria lapurtzeko gero!

DON GAXPAR

Horixe lotsagabea; galanta gainera!

PERNANDO

Adi beza, Don Gaxpar: nere etxean begiratu behar du beste inon baino lehen, ikusteko guk ez dugula txerririk gordeta.

DON GAXPAR

Ez, ez, ez Pernando; nola egingo diat ba hori?

PERNANDO

Bai, bai, bai. Ni nintzen berorren asmoen berri ondoen nekiena eta lapurreta horretarako aproposena.

DON GAXPAR

Ez Pernando; nik konfiantza diat eta ez nauk hire etxean miaketan arituko.

PERNANDO

(*Etxe barrurantz bultzatuz*) Bai, bai. Nik ez dut nahi berorrek pentsatzerik Pernando lapurra eta gezurtia dela, eta nere etxean begiratu behar du beste ezer baino lehen.

DON GAXPAR

(*Kontra eginez*) Ezetz!

PERNANDO

(*Berean segitzen duela*) Baietz.

DON GAXPAR

Ezetz.

PERNANDO

Baietz.

DON GAXPAR

Ezetz esan diat, eta ni nauk herri honetako Erretorea.

PERNANDO

Baietz esan diot, eta ni naiz etxe honetako jabea. (*Sarreraziz*)

(*Etzera sartzen dira; bertan haurrak ari dira, bazterrak nahastan, jolasean, eta txoko batean, seaskan negarrez dagoen umeari lo egin dezan eraginez, Joxepa.*)

JOXEPA

Egunon, Erretore Jauna.

DON GAXPAR

Baita zuei ere. Zertan zabiltzate?

JOXEPA

Badaki: umeak direla, hau dela eta bestea dela, beti lanean.

DON GAXPAR

Bai, guri ere ez zaigu buruhausterik falta.

JOXEPA

Zer du berorrek?

PERNANDO

Hara: txerria lapurtu diotela bart.

JOXEPA

Ez da izango...?

DON GAXPAR

Hala da ba.

JOXEPA

Hori ere badugu? Jesus, Maria eta Jose.

PERNANDO

Uztatu orain Don Gaxpar pakean, etxeko bazterrak miatu behar ditu eta.

DON GAXPAR

Ez, ez, nik ez nuen nahi...

JOXEPA

(*Etenez*) Bai, bai, bai; begira beza bildurrik gabe, etxe honetan pobre izanagatik besteren txerririk ez dugu gordetzen eta.

DON GAXPAR

Baina nik ez...

JOXEPA

Ez da hemen baina eta baina ondokorik. Ondo begiratu, eta etxe kuxidadea barkatu.

PERNANDO

Aurrera, Don Gaxpar.

DON GAXPAR

Beno, beno; zuek agintzen baduzue... (*Apaletan eta begira hasiz*).

PERNANDO

Aginduko ez dugu ba.

DON GAXPAR

Nik ez diat uste, dena dela, txerria etxe honetan dagoenik.

PERNANDO

Seguru jakin behar du ordea.

DON GAXPAR

Ba, hemen ez zegok txerriaren arrastorik. Ni banihoak, Pernando. (*Arakatzen bukatuta*)

PERNANDO

Horren azkar? Besterik begiratu gabe?

DON GAXPAR

Non nahi duk ba begiratzea? Garbi zegok ez dagoela hemen. (*Ate alderantz abiatzen da*)

PERNANDO

Berorrek nahi duen bezala. (*Aterantz lagunduz*)

DON GAXPAR

Eskerrik asko agertu duan konfiantzagatik.

PERNANDO

Baldinbait ere! Nahi duenean etorri, eta ea azaltzen den zorioneko txerria. (*Atea zabalduz*)

DON GAXPAR

Ez diat uste. Honez gero, norbaitek farre galanki egingo dik nere lepotik.

PERNANDO

Eta txerri jate ederra ere bai.

DON GAXPAR

(Etsita) Bai, hori ere bai. Beno, ikusi arte. *(Irteten du)*

JOXEPA

Bai, ondo segi.

PERNANDO

Hurren arte. *(Itxi egiten du)*

20. AGERRALDIA

(Erretorea joandakoan, Pernandorenean, denak hasten dira uju eta aja, saltoka, kantari, txaloka, txistuka eta pozez txoratzen. Seaskako lastaiatik txerria aterako dute eta denek erabili nahiko dute, bularrean estututa, dantzari eta jira-biran. Horrela, kantari ari direla, kalejiran ere hasiko dira, txerria tartean darabiltela, Pernando, Joxepa eta seme-alabak; une hauetan esango dituzten gauzak ez dira zehaztu beharrekoak: nahiko dugu pozezkoak eta apaizarekiko trufazkoak izango direla esatea.)

PERNANDO

Badugu negu honetarako txerria.

JOXEPA

Beharra ere bagenuen.

MARTIN JOXE

Nik xolomoa nahi dut, nik xolomoa nahi dut.

JOXEPA

Don Gaxpar gaisoak zer jango ote du?

PERNANDO

Izango du horrek bestela ere, nahikoa talo eta esne.

JOXEPA

Ez da goserik hilko, ez.

PERNANDO

(Panderoa ateratzen du, Martin Joxeri ematen dio jo dezan, eta bera trikitalarien tankeran hasten da kantari, familia osoak dantza egiten duen bitartean; doinua akelarrerren «Oraingo neskatilak» edo Laja eta Landakandaren «Minifalda» izan daiteke.)

Don Gaxparren txerria
dugu inguratu
Don Gaxparren txerria
dugu inguratu.
Berak gizendu baina
Pernandok jango du
Ai, oi, ene
Pernandok jango du.
Don Gaxparren txerria
dugu inguratu.

(Doinu berberaz)
Seaskan gorderikan
txerritxo kuttuna.
Umeak bezalaxe
maiteko duguna.
Goserik lapurtzea
ez da ez pekatu.
Ta baldin balitz ere
mesedez barkatu.

(Bukatuz)
Negu hotz hontarako
badugu zer jana.
Odolki ta txorixo
aprobetxa ahal dana.

(Txalo eta buila artean bukatzen da; iluna)

AZKENA

(Lau protagonista nagusiak ateratzen dira eskenategira eskutik helduta, ikuslegoa agurtzeko. Azken agurra puntukako bertsoz kantatzen diete ikusleei, hemen adierazitako hurrenkeran.)

JOXEPA

Pernandoren bizia
berpiztu naiean

BITTORI

talde hau azaldu da
gaur zuen aurrean.

DON GAXPAR

Pakea dizutela
Jainkon izenean.

PERNANDO

Berriro ere deitu
nai duzuenean

AMAIERA

Arantza Aldalur
Hainbat gau izarrik gabe...!

ARANTZA ALDALUR

HAINBAT IZARRIK GABE...!
1988 Felipe Arrese y Beitia Lehiaketa

Euskaltzaindia
Bizkaiko Aurrezki Kutxa
Bilbao
1989

NERE GURASOENTZAT

EZ, EZ NAIZ GEHIAGO IZANGO...

Ez, ez naiz gehiago izango...

Eta izango da elurra
neguko teilatuetan;
eta izango da dardara
zuhaitzen adarretan.

Ez, ez naiz gehiago izango...

Eta izango da tristura
herriko kanpaietan;
eta izango da soinua
piano tekletan.

Ez, ez naiz gehiago izango...

Eta izango da hostoa
udazken bideetan;
eta izango da malkoa
naguko beiretan.

Ez, ez naiz gehiago izango...

Eta izango da edonor
leiho haren aurrean
baina ez da inor izango
leiho haren atzean

zeren, ez, ez bait naiz gehiago izango...

BIZIA... HERIOTZA

BIZIA

B elarraren ihintza.
I hintzaren zirrara.
Z irrararen indarra.
I ndarraren ametsa.
A metsaren ametza.

HERIOTZA

H aizearen etena.
E tenaren requiema.
R equiemaren iluna.
I lunaren oihua.
O ihuaren txilioa.
T xilioaren zarata.
Z arataren antzua.
A ntzuaren helmuga.

Biziaren bukaera,
heriotzaren hasera,
haseraren bukaera,
bukaeraren hasera,
bukaera, hasera,
hasera, bukaera,
bizia, heriotza,
ia ia...
gauza bera.

TRISTE DAGO HARKAITZA

Gaur harkaitza dago triste

Olatoak aurrean dituen
beti bezala arren.

Gaur harkaitza dago triste

Ohizko laguna joanez
nor gero harrez
bere gainean jarriko ete?

Gaur harkaitza dago triste

Bakarrik itsasoari mengel
dagoelarik so egiten.

BETIRAKO JOAN ZARA

Betirako joan zara.

Eta gaur
negar dagi sahatsak,
negar dagi zumarrak;
eta gaur
haizeak ez du indarra,
haizeak ez du laztana.

Betirako joan zara.

Eta gaur
ihazminak ez du usaina,
ihazminak ez du urrina;
eta gaur
argiak ez du distira,
argiak ez du dirdira.

Betirako joan zara.

Eta gaur egunak ez du zirrinta,
egunak ez du ihintza;
eta gaur
gauak ez du muxarra,
gauak ez du izarra.

Betirako joan zara.

Eta gaur, bihar, beti,
gelditu naiz garratza,
gelditu naiz bakarra.

HAINBAT...

Hainbat...

**Hainbat gau
izarrik gabe!**

**Hainbat begi
malkorik gabe!**

**Hainbat tresna
soinurik gabe!**

**Hainbat gizaki
zirrarakik gabe!**

Hainbat...

**Denen artean zu,
izar, malko, soinu...
sentikortasunez bete.**

AGUR

Agur
jaio nintzeneko etxe.
Agur
hainbat ibilitako bide.
Agur
lurralde zimel eta heze.
Agur
iharturiko urertz.
Agur
sumatuko ez dudan haize.
Agur
itsas eta aurpegi bare.
Agur
txikitako adiskide laket.
Agur
gehiago entzungo ez dudan ametz.
Agur
atzeko begi uher.
Agur
oroipen saierre.
Agur
ahalezko eta ezinezko amets.
Agur;
banoa eta ez dakit
itzuliko naizen.
Agur...
Agur.

EZIN ELKARTU

Ni,
tanta bat
itsasoan zehar.

Zu,
itsasoa
tantaren egar.

Gu,
bi olato
elkartu ezinean.

NARE...

Nare...

**Nare dago zerua
hodeiak aldegitan.**

Nare...

**Nare dago hodeia
haizearen ihesean.**

Nare...

**Nare dago haizea
hostoak laztantzean.**

Nare...

**Nare zeru, haize, hosto...
...eta ni, zu zaudenean.**

KENDUKO

Kenduko diote argia
izarrari;

kenduko malkoa

sahatsari;

kenduko urrina

liliari;

kenduko soinua

pianoari;

baina inoiz zure oroimena

bihotzari.

EZ, EZ BEGIRA ATZERA!

Ez, ez begira atzera!

**Soilik oroipenak
jazartzen zaitu;
ez duzu inor atzean,
soilik iragan
...eta itzala.**

**Oroipena denborak darama,
iraganak iragana,
itzalak itzala.**

**Eta zu...
nork eramango zaitu?**

Ez, ez begira atzera!

UDAZKENEKO... UDABERRIAN

Igaroko dira hosto iharrak
...udazkenean.

Euriak leihoa ihintzatu
...udazkenean.

Haizeak laztanak eramango
...udazkenean.

Zure oroimen ihartuak
aurkituko bere eitea
nire goizeroko ihintzan
udazkeneko... udaberrian.

Etorriko dira hosto hezeak
...udaberrian.

Izpiak lehortuko kristalak
...udaberrian.

Haizeak ekarri laztan, lilurak
...udaberrian.

GERIZPE NAHASIA

Ibaiari begira
nire irudiaren bila,
gerizpe nahasia
aurkiketa soila.

Gizakiei begira
beren balioen bila,
oinarri nahasia
aurkiketa soila.

Eguntsentiari begira
argiaren bila,
ilunabar nahasia
aurkiketa soila.

Ibaiari begira
nire irudiaren bila,
gerizpe nahasia
aurkiketa soila.

KENDU ETA EZIN

Harea,
itsasoaren maitalea;
kendu harea itsasoari
eta ezin bidea jarrai.

Lizar,
zelaletako mehar;
kendu lizarra zelaiari
eta entzungo duzu intziri.

Izarra,
gauaren egunabarra;
kendu izarra gauari
eta jasango du ikusmin.

Zu,
nire bihotzeko kuttun;
kendu zu niri
eta ezingo naiz bizi.

ITXOIN

Gaeko isilean
itsasoa eta harea
bat egitean
...itxoin.

Zeruko ilunpean
izarren bat
doanean jaiotzera
...itxoin.

Gure bihotzetan
ez dagoenean
iadanik itxaropena
...itxoin.

Itxoin...
Itxoin...
Noiz arte itxoin?

ZAUDE ISILIK

Behatuz behatuz
zaude isilik
olatoak zeharkatuz
pentsakerak doazelarik.

Iritsiz iritsiz
ostertzera
puntu bihurturik
txalupen antzera.

Ezkutatuz ezkutatuz
itsasoa zoaz poliki
bakarti ororen erruz
isilekoak irentsiz.

Behatuz behatuz
zaude isilik
olatoak zeharkatuz
pentsakerak doazelarik.

GALDETZEN

Nor

zara?

Non

zaude?

Nondik

zatoz?

Nora

zoaz?

...

zioen

bere baitan

aurkitzeko ihardespen

hainbat itzal, mikatz.

BAKARRIK

Bakarrik.

Olatoak indarraz ertzaz
nola jabetzen diren,
gero bera olatoak
saiatzen da jaten.

Bakarrik.

Borrokan olato eta ertz
dakuskizu so egile,
ezin hartu parte;
beraien gauza da,
ezin sartu barne.

Bakarrik.

Orain olato bat,
beste bat, bestea...
zaituzte zorabiatzen
heriotzarekin dabiltzan
bitartean jolasten.

Bakarrik.

EZ HEGORIK, EZ ARANTZARIK

**Uste duzu ezberdin hegoek
txoria dagitela
larrosa ere arantzek
dagiten antzera.**

**Larrosak ez du hegorik.
Txoriak ez du arantzarik.**

**Ez duzula hegorik,
arantzarik ezta,
jaiotzetik dakarzu
soila izakera.**

**Larrosak ez du hegorik.
Txoriak ez du arantzarik.**

BADAKIT

Badakit
ni gabeko egunetan
lore, hosto, zuhaitzen
gogoko duzula urrin.

Badakit
ni gabeko gauetan
itsasoarekin solasetan
zabiltzala izuti.

Badakit
ni gabeko poz, nahiagabeetan
dagizula hasperenka
kexu tamalgarri.

Ez dakit
zaudenean nirekin
zergatik sumatzen zaitudan
beti hain ezberdin!

GALDEZKA

Nor
gauero ilargi azpian?

Nori
begira begiak estalita?

Noren
oroipenak biztuz distira?

Nortaz
hain hitz isilak?

...non, nondik, nora
hain bakar bizia?

ZEHARKATUZ

Zeharkatuz mendiak,
edanez urertzetan,
doazkit oharkabe
egun amaigabeak.

Zeharkatuz gauerdia,
edanez izarretan,
doazkit oharkabe
pentsakera nareak.

Zeharkatuz tristurak,
edanez oro minbera,
doazkit oharkabe
ideia ainuberak.

Zeharkatuz egiak,
edanez gezurretan,
doazkit oharkabe
lagunik minenak.

Zeharkatuz, edanez,
doazkit oharkabe
itzultzera ez doazen
unerik ederrenak.

HOSTOA LIBURUAN

Hostoa
edozein liburutako
orrialde edonon;
ez, ez da egia;
jakinako hostoa
jakinako liburuaren
jakinako orrialdean,
non izan zen
eta oraindik den
sentimendua
gordetzen den.

EZ OMEN NAUZU ULERTZEN...

Ez omen nauzu ulertzen...

**Haurraren malkoak
zureak isurtzen ez dituen bitartean;
nire ametsak zeureak zeharkatuz
bilatzen dituzun bitartean;
ontzi batek aldegitean
bakardadea sentitzen ez duzun bitartean;
olatoen zurrumurruek
ezer esaten ez dizuten bitartean
ez nauzu ulertuko.**

Ez omen nauzu ulertzen...

NEGAR DAGIZU

Negar dagizu
bestea zu baino hobeto
bizi delakoan.

Negar dagizu
besteena zainduz nola
ikusiz zurea doan.

Negar dagizu baina
zer da baten bizia
denenen artean?
Tanta soil hutsa
neguko euritean.

Negar dagizu.
Ez gehiago negarrari eman!

EZ ESAN INORI

Ez esan inori
eguzkia doanean
ezkutatzera,
izarrek negarrez ilargia
ikusi dutela;
bere malkoak
goizeroko ihintzan
aurki ditzakezula.

Inor ez bait doa
ezer susmatzera
zure begi ederrek
egun berriari
argia ematean
alboan dituzunen barneak
biztera zoazela
olatoek itsas zabala
indartzen duten antzera.

Ez, ez esan inori.

GAUAREN BEGIAK

Azkenik
ikusi dizkiot begiak
...gauari
elkartu bait dira
...nireekin.

Eguneko euria,
goizeko ihintza
izango ote noren
...malkoa.

Azkenik
ikusi dizkiot begiak
...gauari;
ederrago dakusat dena
...bereekin.

EZIN HARRAPA

Harrapatuko zaitut!

Txikitan bezala
igoz haritza
harrapatu nahian izarra
doakigu lilura
harrapatu nahian ametsak.

Ezin harrapa!

Biratz bezirada atzera
genekuskien zuhaitzak
so egiten ainube
gure huts desira;
dokusagu biziaren farrea
harrapatu nahian gogoak.

Ezin harrapa!

Harrapatuko zaitut!
baina...
ezin harrapa!

NEGAR

Negar egiten du lorak
urik gabe

Negar urak
itsasorik gabe.

Negar nik
zu gabe.

Denak aldegitan
negar egingo duzu
zeu gelditzean
inor gabe.

TRISTE DAGO LUMA

Nola haizeak daraman
leihotik triste dakusat
hain bekaizki gorderik
zenuen laket luma.

Txoria falta denetik
sentitzen da hain hutsa,
bera gabe agorra
zaio bizi gura.

Ea haizeak naraman
beste edonongo lekura,
bertan aurkituko ote
neure bizi zentzua.

Zu joan zinenetik
ez dut leinurua,
txoria falta zaion
bihurtu naiz luma.

Nola haizeak naraman
leihotik triste dakusa
hain bekaizki gorderik
zenuen laket luma.

OLERKI NAHASIAK

Zu eta ni eta itssoa.
Zu eta ni.
Zu eta itsasoa.
Ni eta itsasoa.
Zu.
Ni.
Itsasoa.

Zu uhin.
Ni haize.
Hurbiltzen natzaizu.
Zaitu beste batek.

Galduko zintuzket
berriz aurkitzekotan;
bilatuko nindukezu
berriz galtzekotan.

Edonon
aurkituko nauzu!
Benetan nahi duenak
berak bilatzen du.

Duzu zarelako;
duzulako zara;
ez naizelako
zaitut;
zaitudalako
ez naiz.

Bat gehi bat hiru.
Zu,
mundu bat;
ni,
mundu bakar;
zu eta ni,
mundu hiru:
zu, ni eta gu.

Kaiolaren ertzean
txoria dago isilik;
zu joanez gero
ez du oihartzunik.

Gauero eta soilik
zaitudan arren nitzat,
jan behar nau egunez
edonor duzun espak.

Hosto pila bat
lorerik gabe;
hori izan da nire bizia
zu ezagutu arte.

Arantza bat daukagu
bihotzean zintzilik;
lore bat joan zaigu,
besteak daude txirpil.

Zenbat izen ezkututzen
zure sabelak ote?
Erakutsiz aurpegi bare
famieltara nahigabe.

Zer da maitasuna?
Eman eta eman
eta jasotzeko gura.

Ez!
Ez gehiago biluztu!
Zure arima ere
agertzen da hain huts...

Ez zarela aldatuko
diostazu
denboran zehar;
denbora ere
denboraz
aldatuz doa.

Itsasertz aratzeko
harea jasotzean
aurkitu genuen lehor
hondaturiko ametsa.

Ez duzu egiten negar
galdu nauzulako,
beste batek
aurkitu nauelako.

Nahi duzun hori
olatoetan aurkitzeak
zenbait arrisku dakar;
ez alferrik,
datozen bezala doaz.

Edonon edonorekin
edonortaz hitzegiten
nitaz ezik.

Negar egiten duzu
trenak aldegitan,
ihesa galerazteko
ezer egiten ez duzun bitartean.

Nik maite zaitut!
Ez da egia;
benetan maite duenak dio;
maite zaitut!

Oro amets, nahi, gogo
hareko aztarna;
itsasgora abiatuz gero
hutsune txit aratza.

Olerki guztien artean
esanez bat hautatzeko
jakin nuen tristeki
inoiz ez nauzula ulertuko.

Hitzegiten isilik,
tristuraz farre egiten,
maltzurkeria ugari
munduan ertzez ertz.

Nire eza nabaritu arte
ezingo nauzu
behar bezala maite.

Negar dagizu
besteak daramalako izarra
eta soilik zuk
dakusazu distira.

Olatoak Isai jolastuz
itsasoan dabiltzan bitartean,
zu eta ni ezabatzen
ontzien antzera
puntuetara murriztuz
ertzetik aldegitan.

Bada ezberdintasuna
zu eta hodeien artean:
mugikortasun bera izanik
zuri ezin alda eitea.

Nire begietan
zure galdera ororen
erantzuna aurkituko bazenu
nik ezingo nuke
zureetan
ezer aztertu.

Udaberriak erakutsi.
Udak utzi.
Udazkenak mehatsu egin.
Neguak ebatsi.

Nik galdegin.
Zuk ihardetsi.
Guk intziri.
Itsasoa isilik.

Ni igo eta igo,
zu artean gorago
zioen zuhaitzak
ilargiari lauso.

Ni mugituz mugituz,
zu tinko harro
zioen ilargiak
zuhaitzari mantso.

Iraganaren mina,
begirada garbia,
barne txit tristea;
horra malenkonía.

Udazkenero
hostoen erorpenak
ematen digun goibeltasuna,
udarako zaratari
ihes eginez
isiltasun hutsarekin
topatzea
besterik ez.

Udazken geltokian
ahaztu zitzaidan bizi gura
gehien maite nuena,
gehien eta ia bakar,
arrats haizetsu hartan
atzean uztean;
nire oinak oharkabe
hosto iharra azpian
hartzen zuen eran
geltoki triste hark
harrapatzen ninduen
niregana bultzatuz
oroipen tristeak.

ZURE... NIRE

Zure...

...bideak
nire oinez
zapalduz;
...egarria
nire ezpainez
asetuz;
...begiak
nire begiez
miatuz;
...gauzez
nireak
ahaztuz;

...

zure bidea
nire bide;
zure ezpainak
nire egarri;
zure begiak
nire begi;
zure gauzak
nire.

ZURE ala NIRE
azken?

NIRE... ZURE

ZURE... NIRE

ZU eta NI

NI eta ZU

NI ZUGAN

ZU NIGAN

NZZNNZ...

ZOAZENERAINO LAGUNDUKO ZAITUT

Zoazeneraino
lagunduko zaitut;
bidea izan bedi luzea,
jabe naza nekeak,
ez ohar naukazula atzean;
jo nazate hostoek,
draga zuloek,
itsu lainoek...
eta egarria dudanean
bustiko naute
zure izar tantek;
azala lehor dudanean
urratuko naute
zuk zapaldiriko
harri koskorrek;
baina... luzea bada ere
zoazeneraino
lagunduko zaitut;
eta bidea bukatzean
ohartuko zara:
begira atzera, zer duzu?
Ez txoririk, ez hostorik,
ez urratsik...
...ni baino.

NEGAR DAGITE

Negar dagite txoriek
hostoek apalki neguan
zuhaitzak agurtzean.

Izarrek negar dagite
eguzkiak harro goizean
eguna dakarrenean.

Poemek negar dagite
maiteminduen ahotan
ahotsik ez aurkitzean.

Negar dagite teklek
zure esku dardaratsuetan
hiltzoria antzematean.

Negar dagite... NORTZUK... NORK?
ni betirako agurra
bakardadeari ematerakoan.

ETA...

Eten luzearen ondoren
itzuliko zara
eta barnea guztiz minduta,
txoriek
krabelin artean habiak
egiten bait darraite,
keak
eguzkirainoko bidea
oraindik bait dagi,
gaztainek
auzoari ilunabarrez
gozo usaina ematen
bait dihardute,
aldegingo duzu.

Txoriak, kea, gaztainak
ez bait dira ohartu
iadanik ez zinela zu,
zuga ez zen bezala
ez txoririk, ez kerik, ez gaztainarik
urrun zinenean.

ZURE BAKARDADEA

Gehiegizko maitasunak
bakardaderik izugarrienarekin
egiten du topo
beste haurtxo bat
—zure anaia, diote;
zer ote hori?
hitz potoloa nonbait!
mundura etortzean.

Harrez gero
zenbat borroka
-negar-orro-oihu-malko-
besteen begiradak
zure gain jartzearen truke
—truke hutsa—
ez alferrik begiradak
bestearengana doaz.

Zer ote gauza txiki horrek
dirudienez zuk ez duzuna?

Saiatzea okerragoa.
Hobetzen ahaleginduta ere
bide guztiak okertuz doaz.

Egiten duzula
egiten duzulako.
Ez duzula egiten
egiten ez duzulako.

Ez da asma erraza.
legezko jokabidea
arauak batetik bestera
aldatuz doazenean.

Joan eta etorri egunak, gauak, urteak...

Inoiz izan ez duzun
maitasunik ezak
behin eta berriro zarama
zure bakardadera.

JARRAI...

Jarrai urratsak... Jarrai urratsak

Noren, non?

zureak ezabatzen

atzekoenak,

biharkoek ezabatuko

zureak

...

urrats arrastoekin

ez bada ere

jarrai...

hor bait dihartute bideek.

NON DIRA GOGORAPENAK?

Herbestera joanik
zein ezberdin!
Zenbat bide, jende, lilura berri...!
Lotzen zintuen oro
orain aske;
baina... arratseko zazpiak
eta zer nolako tristura!
ez duzu zure herria entzuten,
kanpai hauen soinuak
gogorapenik ez dakar.

KANPOAN... EURIA ZEGIEN ETA ZEGIEN

Kanpoan
euria zegien eta zegien.

Nire izena
zure gogorapenetan
amilduz
piskanaka piskanaka
...ezabatu arte;
zure maitasuna
zirrarak ezean
kikilduz
beste izen batek
...nork berpiztuko;
eta bitartean kanpoan
euria zegien eta zegien.
Itxaropen hauskor
begi lehor
sentikortasun agor
lilura ikol
errealitate gogor
etorkizun doilor
norabiderik gabeko zidor;
gauzak amaitzear,
konponbide izpi,
amaitutakoan
eguzkirik gabeko ihintzi;
eta kanpoan artean...
euria zegien eta zegien...

ZURE BEGIETAN...

Zure begiak
nireetatik kendu gabe
nire suntsiera
klixkatu gabe dakusazu
nire minberarako;
eror nadi
eraman naza haizeak berarekin,
ez bait dut indarrik
ez zutik, ez etzanda
tinko izan ahal izateko
baina...
ez bekizkit
zure begiak erauts
ez bederen inolako
zirrarak
maitasun nahiz gorroto
ikus dezakedanean
beraietan.

NEGAR DAGIT

Negar dagit
begiak ihartu bait zaizkit.
Ernetasuna jabetuko
nitaz
amaiera gabeko
gauetan;
eskuek galduko
higi trebetasuna;
gauzen irudia ezabatuko
nire begirada lausoan
baina ni...
tinko, gogor, harro!
nahiz begiak
malko dariela
jarri ezinean,
negar dagit.

NON DA AITATXO?

Non da aitatxo?
Bidaian, maite, bidaian.
A bai, lan bidaian;
kontatuko ipuin bat?
Nekatuta nago, maite, nekatuta.
Ama, beldurra, iluna.
Lasai, maite, lasai,
itxi begiak har zaitzan loak
Zotin itoa
izara heze...
ez aitatxo, ez ipuin, ez ezer.

Ahaz nazazu
jo, bota, bazter
...edozer
baina...
egin ezer!

Ez egin negar
aurkitzen ez baduzu
norabidea;
itxasoak ez du helmuga
ez eta zeruak,
garrantzitsuena
bilatzen dihardutea
bait da.

Beste batena zu
nitaz pentsatzen duzularik;
beste batena ni
zukan nauzularik

AURKIBIDEA

3

Xabier Mendiburu

Pernando, bizirik hago oraindio

65

Arantza Aldalur

Hainbat gau izarrik gabe...!

© Xabier Mendiguren, 1989
Pernando, bizirik hago oraindio

© Arantza Aldalur, 1989
Hainbat gau izarrrik gabe...!

Argitaratzailea:
Bizkaiko Aurrezki Kutxa
Espainia plaza, 1. Bilbao

Inprimatzailea:
Editorial Ellacuria, S.A.L.

I.S.B.N.
84-87245-04-8

Legezko erroldapena
BI. 2595/89